

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



*Fiachras.*  
Fiachras.  
Bonberenea Ekintzak.  
Iraupena: 42'55".  
13,50 euro.

## Irlandatik euskal rockera bidiaia, punkean geldiunea egin gabe

FIACHRAS: Irlandako jatorria duen izen arraro horren atzean Brigada Criminal, Txinaskis eta beste punk-rock talde batzuetan ibilitako lazkaotar, bergarar eta legazpiar koadrila dago. Iraganean landutako musika estiloez zeharo aspertuta daudela aitortu eta bestelako taldea egin dute, sentimendu handiagoa duena. Badira The Pogues eta Dublinersen folk mozkortia pitxarka irentsi duten pieza nostalgikoak; beste talde

gutxi bezala Hertzainak edota euskal rock bizienaren parera jartzen dituenak; The Clashen aldarria dutenak; Johnny Cashen suzuria piztuta eusten dutenak; eta baita Nick Caven usaina duten balada antzekoak ere. Bestalde, gaztelania eta euskara tartekatzen dituzte hausnartzera eta atzera begiratzera bultzatzen duten hitzak janzteko. Lan oso irekia, baina hurbila eta gusturara entzuten dena.

Haritz Artola - Fiachras

«Lehen ikusle gaztetxo ugari genituen eta gorroto nuen. Horregatik euskaraz abesteari beldur diot»



**Denbora asko behar izan duzue proiektu hau itsasoratzeko?**

Ideia Brigada Criminal desegin aurretik dator. Aldanondo eta biok punk-rocka jotzeaz aspertuta geunden. Urte eta erdian Joseba eta Zangitu batu, eta abian jarri ginen.

**“Motor zaharraren eskemak apurtuta, zirkulazio gabe ibiltzeko baimena daukazu”. Beste bide berri bat hartu duzue, ezta?**

Bai. Talde berri bat sortuta aukera daukagu potroetan jartzen zaiguna

egiteko. Bestela, badirudi inertzia baten barruan jo behar duzula. Hala, inongo helbururik jarri gabe, abesti bakoitza mota batekoa da.

**“Bihotza ematen duzun ia gauza denek huts egiten dute”-la diozue, baina hitzak barrutik idatzita daudela dirudi...**

Iraganean idatzitakoak baino sakonagoak dira, bai. Hala ere, uste dut nire kasuan ez dela egoera pertsonalaren araberakoa, baizik eta musika estiloarena. Punkean ez bezala, orain beste zerbait eskatzen

zidan gorputzak; eta nahiko natural irten zait.

**Kantuetan sinpletasunaren bila jo duzue...**

Bai. Aldanondok eta biok egin ditugu eta ez gara aparteko musikariak. Hortaz, hala irten dira. Baina beste musikari askorekin kantuak apainduta gelditu dira.

**“Ezer ez da txarragoa aspertuta hiltzea baino”. Hori esaten diezue bizkarra eman dizuetenei?**

(Barre). Ezinbestekoa da egiten dugunean %100 sinistea, bestela alferrik ibiliko ginatete musika egiten. Batzuk hunkitzen dira, beste batzuk galdetzen digute ea zertan gabiltzan... Bagenekien hori izango genuela, hori ere ona da.

**The Poguesen kutsua duten kantuak zuen marka diren arren, euskarazko kantuak ere dotoreak egiten dituzue...**

Baliteke, baina euskararekin badut halako barne borroka bat. Ni egunerokoan %90ean euskaraz aritzen naiz, baina iraganean gogoan daukat ikusle gaztetxo ugari genituela, Kilo-metroetan eta abar... eta gorroto nuen hori. Horregatik euskaraz abesteari beldur diot. ■